



ORIOKOU DALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

Eguna: 2025eko maiatzaren 29a, osteguna.

Tokia: Udalbatzarraren aretoa

Ordua: Hasteko ordua: 19:30

Bukatzeko ordua: 20:20

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Macazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua

Nagore Rementeria Argote zinegotziak, udal honetako EH-Bildu talde politikoko kideak, adierazi du ezin zela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi.

GAI-ZERRENDAA

1. 2024ko laugarren hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
2. 2024ko udal-aurrekontuaren laugarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
3. 2025eko lehenengo hiruhileko berankortasun-txostenaren berri ematea.
4. 2025eko udal-aurrekontuaren lehenengo hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.
5. 2024ko udal-aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.
6. Berrestea, egoki bada, Orioko katuen kolonien kudeaketa etikorako programa onartzen duen alkate-dekretua.
7. Onartzea, egoki bada, Ibai Rosa Iturria udal-langileak aurkeztutako eskaera laneko bateragarritasunari buruz.
8. Onartzea, egoki bada, Orioko Udal Musika Eskolaren 2025-2026 ikasturteko musika-irakaskuntzaren tarifak.
9. Onartzea, egoki bada, txu-txu trena erabiltzegatik eta bertan iragarkiak jartzeagatik dagozkion tarifak.
10. Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Orioko udalerriko babes akustiko bereziko eremuaren izendapenari: ekintza-plana.
11. Lehen onarpena ematea, egoki bada, elektrizitatea eta ur beroa sortzeko eguzki-plaken instalazioa arautzen duen udal-ordenantzaren aldaketari.
12. Eskariak eta galderak.

BAT.- 2024KO LAUGARREN HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Udalak 2024ko ekitaldi ekonomikoaren laugarren hiruhileko berankortasun-txostenaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

BI.- 2024KO UDAL-AURREKONTUAREN LAUGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalak 2024ko ekitaldi ekonomikoaren laugarren hiruhileko exekuzio-egoeraren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

HIRU.- 2025EKO LEHENENGO HIRUHILEKO BERANKORTASUN-TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak 2025eko ekitaldi ekonomikoaren lehen hiruhileko berankortasun-txostenaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

LAU.- 2025EKO UDAL-AURREKONTUAREN LEHENENGO HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak 2025eko ekitaldi ekonomikoaren lehenengo hiruhileko exekuzio-egoeraren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

BOST.- 2024KO UDAL-AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Udalbatzarrak 2024ko udal-aurrekontuaren likidazioaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

SEI.- BERRESTEA, EGOKI BADA, ORIOKO KATUEN KOLONIEN KUDEAKETA ETIKORAKO PROGRAMA ONARTZEN DUEN ALKATE-DEKRETUA

Udalbatzarrak maiatzaren 26ko 424/2025 Alkatetza Dekretuaren berri izan du. Dekretuak katuen kolonien kudeaketa etikoaren programa onartzen du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2025eko maiatzaren 23an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**]; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

BERRESTEA maiatzaren 26ko 424/2025 Alkatetza Dekretua, katuen kolonien kudeaketa etikoaren programa onartzen duena.

ZAZPI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, IBAI ROSA ITURRIA UDAL-LANGILEAK AURKEZTUTAKO ESKAERA LANEKO BATERAGARRITASUNARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri izan du. Ibai Rosa Iturria udal-administrariak, Orioko Udaleko bitarteko funtzionarioak, bateragarritasun-eskaera aurkeztu du udalean, 2135 sarrera-zenbakiarekin. Honela dio hitzez hitz:

Honen bidez, eta Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 19. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, baimena eskatzen dut Orioko Udaleko bitarteko funtzionario gisa dudana lanpostua (administrari) bigarren jarduera batekin aldi baterako bateragarri egiteko.

Jarduera horretan, Donostiako Artzain Onaren Katedraleko tenpluaren arduradunpostua betetzen da, Luminiscence ikuskizunaren barruan, 2025eko maiatzaren 31tik abuztuaren 31ra bitartean, Udalean egiten dudana ohiko lanaldiarekin (astelehenetik ostiralera, 7:15etatik 15:30era) bateragarria den ordutegian.

Jarduera honen ezaugarriek ez dute interes-gatazkarik edo interferentziarik sortzen Administrazio honetan betetzen dudana lanpostuaren berezko eginkizunekin, eta indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak betetzen ditu.

Horregatik guztiagatik, eta azaldutakoarekin bat etorritik, jarduera hori egiteko bateragarritasuna eman dakidan eskatzen dut.

Eskaera horri erantzunez, Orioko Udaleko Administrazio Orokorreko teknikariak txosten bat egin du. Honela dio hitzez hitz:

“Eskaera horri erantzuteko, Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea jo behar da. Lege horrek

printzipio orokor gisa ezartzen du legearen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek, beren kabuz edo ordezkari gisa, ezin izango dutela jarduera pribaturik egin, ezta jarduera profesionalik ere, beren kontura edo entitate edo partikularren mende edo zerbitzupean, baldin eta jarduera horiek zuzenean lotuta badaude langileak lanpostua duen sail, organismo edo entitatearekin.

Legearen 2.c) artikulua ezartzen du lege horren aplikazio-eremuak "toki-korporazioen eta horien mendeko erakundeek zerbitzura dauden langileak" hartzen dituela, eta, beraz, bateraezintasuna dago sektore publikoan edo pribatuan bigarren lanpostu bat betetzeko.

Hala ere, legeak Udalbatzarrari ahalmena ematen dio kasu jakin batzuetan langile publikoen bateragarritasuna onartzeko. Horretarako, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Bateragarritasuna onartzea, interesdunaren lanaldia eta lan-ordutegia aldatu gabe.
2. Bigarren lanpostu horren lan-ordutegia ez izatea Administrazio Publikoko asteko lanaldiaren erdia edo gehiago.
3. Azken bi urteetan, bere lanpostu publikoa dela-eta bateragarritasuna eskatzen den jardueran parte hartu ez izana edo etorkizunean parte hartu behar ez izatea.
4. Dagokion langileak lan egiten duen sail, organismo edo entitatearen kudeaketarekin zuzeneko lotura duten enpresa edo erakunde pribatuetakoa administrazio-kontseiluetako edo zuzendaritza-organoetako kide ez izatea.
5. Bigarren lanpostua ez izatea sektore publikoarekin zerbitzuak, obrak edo hornidurak emateko kontratua duen enpresa baten kargua.
6. Berariazko osagarriak ez gaituztea Administrazio Publikoan duen lanpostuagatik jasotzen dituen ordainsarien oinarritzko ordainsarien ehuneko 30etik gorakoa.

Ordutegiari dagokionez, langileak argitu du lana iluntzean izango litzatekeela eta ez dela iristen Udaleko lanaldiaren erdira. Udaleko lanpostuaren ordutegi-bateragarritasuna kontuan hartuta (udalaren jardunak ordutegi finkorik ez duen arren), lana goizeko ordutegian egiten du, eta, beraz, bi lanak bateragarriak direla dirudi.

Ondoriozta daiteke langileak eskatutako bateragarritasunak bigarren, hirugarren eta laugarren baldintzak beteko litzatekeela, egingo duen jarduerak ez duelako harreman zuzenik gaur egun berak lan egiten duen sailarekin, eta lana egingo lukeen enpresak ez duelako Udalarekin itundutako kontraturik.

Azkenik, langileak Udalean jasotzen dituen ordainsariak aztertu behar dira, bateragarritasunik balegokiokkeen ala ez erabakitzeko. Eskatzaileak Orioko Udaleko

administrari lanpostua betetzen du. C1 sailkapen-taldean dago, eta Udalhitzeko 14. mailako destino-osagarria eta 19.660,74 euroko berariazko urteko osagarria ditu.

Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko Legearen 16.4 artikulua ezartzen du langile bati bateragarritasun-aitorpena eman dakiokela bere lanpostuari dagokion berariazko osagarriak ez badu gainditzen oinarritzko ordainsarien ehuneko 30, antzintasun-hirurtekoak kenduta.

Administrarien urteko ordainsariak 33.978,44 eurokoak dira; beraz, berariazko osagarri gisa urtean jasotzen dituen 19.660,74 euroek nabarmen gainditzen dute legeak ezartzen duen ehuneko 30eko muga. Hori dela eta, argi dago azken baldintza hori ez duela betetzen bateragarritasuna aitortzeko.

Hala ere, nabarmendu behar da Orioko Udalean lanpostu guztiek, beren ezaugarriak edozein direla ere, oinarritzko ordainsarien % 30 gainditzen duen berariazko osagarria dutela. Horrek esan nahi du, praktikan, Udaleko enplegatu publiko batek ere ezingo lukeela bateragarritasun-erregimenik lortu, eta horrek erabat desnaturalizatzen du legeak aurreikusitako helburua, dedikazioagatik, erantzukizunagatik edo nekagarritasunagatik bereziki ordaindutako lanpostuetan jardutearekin lotzen baitzuen muga hori. Izan ere, 30/1984 Legearen eta 861/1986 Errege Dekretuaren arabera, berariazko osagarriaren xedea da "lanpostu jakin batzuen baldintza bereziak ordaintzea, zailtasun tekniko berezia, dedikazioa, bateraezintasuna, erantzukizuna, arriskugarritasuna edo nekagarritasuna kontuan hartuta".

Txosten hau Barne Antolaketa batzordeari igorri zaio, bere proposamena Orioko Udalaren Udalbatzarrari aurkez diezaion eta horrek bateragarritasunari buruz erabaki dezan.

Hori ikusita, Idazkari-kontuhartzaileak adierazi du, Administrazio Orokorreko txostenak jasotzen duen bezala, hau ondoriozta daitekeela: "langileak eskatutako bateragarritasunak bigarren, hirugarren eta laugarren baldintzak beteko lituzkeela, egingo duen jarduerak ez duelako harreman zuzenik gaur egun berak lan egiten duen sailarekin, eta lana egingo lukeen enpresak ez duelako Udalarekin itundutako kontraturik". Horrenbestez, eta ikusita eskatutako bateragarritasuna 2025eko maiatzaren 31tik abuztuaren 31ra bitartean izango dela, hiru hilabetez, eta gaiari buruzko proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta, Ibai Rosa Iturria udal langileak eskatutako bateragarritasunaren aldeko irizpena eman du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Barne Antolaketa batzordeak 2025eko maiatzaren 23an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA Ibai Rosa Iturria funtzionarioak aurkeztutako lan bateragarritasunaren eskaera, udal-erabaki honen azalpen-zatian adierazitako arrazoiengatik.

ZORTZI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO MUSIKA ESKOLAREN 2025-2026 IKASTURTEKO MUSIKA-IRAKASKUNTZAREN TARIFAK

Udalbatzarrak Orioko Udal Musika Eskolaren 2025-2026 ikasturteko musika-irakaskuntzaren tarifen proposamenaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Herritarrentzako Zerbitzuen batzordeak 2025eko martxoaren 14an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutako **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Danbolin Musika Eskola Publikoan 2025-2026 ikasturtean musika-irakaskuntzei dagozkien tasak eta tasa akademikoen murrizketei buruzko araudiari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA hartutako erabakia eta horretarako egindako espedienteak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluan xedatutakoa betez, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz. Hori guztia honako arau hauen arabera:

- a) Ikusgai dauden lekua:** Udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzailletzan.
- b) Aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.
- c) Erreklamatzeko legitimatuak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazitakoak.
- d) Aurkezteko lekua:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.
- e) Errekurtsoak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Arauzko epea igaro eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikotzat joko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

BEDERATZI.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TXU-TXU TRENA ERABILTZEAGATIK ETA BERTAN IRAGARKIAK JARTZEAGATIK DAGOZKION TARIFAK.

Udalbatzarrak txu-txu trena erabiltzeagatik eta bertan iragarkiak jartzeagatik dagozkion tarifen proposamenaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da, eta, Tokiko Garapena batzordeak 2025eko otsailaren 7an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA txu-txu trena erabiltzeagatik eta bertan iragarkiak jartzeagatik dagozkion tarifak.

2.- JENDAURREAN JARTZEA hartutako erabakia eta horretarako egindako espediente, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluan xedatutakoa betez, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz. Hori guztia honako arau hauen arabera:

- f) Ikusgai dauden lekua:** Udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzailletzan.
- g) Aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.
- h) Erreklamatzeko legitimatuak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazitakoak.
- i) Aurkezteke lekua:** Udalaren sarrera-erregistro nagusian. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.
- j) Errekurtsoak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Arauzko epea igaro eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, hartutako erabakia eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikotzat joko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

HAMAR.-BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIKO BABES AKUSTIKO BEREZIKO EREMUAREN IZENDAPENARI: EKINTZA-PLANA.

Udalbatzarrak espediente administratiboaren berri izan du. Espediente honi buruzkoa da: Orioko udalerriko babes akustiko bereziko eremuaren izendapena: ekintza-plana.

Udal honetako Udalbatzarrak, 2025eko otsailaren 27an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, erabaki hauek hartu zituen:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko udalerriko babes akustiko bereziko eremuaren izendapenari: ekintza-plana

2.- JENDAURREAN JARTZEA aipatutako espediente, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, alegazioak eta erreklamazioak aurkezteko, hala badagokio.

3.- IGORTZEA erreferentziako espediente gaiaren arabera eskudunak diren erakundeei, hala badagokio, egoki diren alegazioak egin ditzaten; horrela, jendaurrean jartzearen emaitza ikusita eta gaiaren arabera eskudunak diren erakunde publikoek egindako txostenak/oharrak ikusita, udalbatzarrak behin betiko onartuko du espediente.

Jendaurrean egon den epean ez da alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztu, eta gai horretan eskumena duten erakunde publikoek ere ez dute inolako oharrik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta jendaurrean jartzearen emaitzak ikusita, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

1.- BEHIN BETIKO ONARTZEA Orioko udalerriko babes akustiko bereziko eremuaren izendapena: ekintza-plana.

2.- ARGITARATZEA behin betiko onarpenaren erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta bidezkoak diren legezko errekurtsioak adieraztea.

HAMAIIKA.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ELEKTRIZITATEA ETA UR BEROA SORTZEKO EGUZKI-PLAKEN INSTALAZIOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak elektrizitatea eta ur beroa sortzeko eguzki-plaken instalazioa arautzen duen udal-ordenantza aldatzeko proposamenaren berri izan du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta, Tokiko Garapena batzordeak 2025eko maiatzaren 9an emandako irizpena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU**, bertaratutakoen **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; Udalbatzarra osatzen duten legezko kideen (hamahiru dira) gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA elektrizitatea eta ur beroa sortzeko eguzki-plaken instalazioa arautzen duen udal-ordenantzaren aldaketari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA udal-ordenantzaren aldaketa hori, interesdun guztiek Udalbatzarrean aurkez ditzaten beharrezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak, 30 laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Udal-ordenantzaren aldaketa hori interesdunen eskura egongo da Udaleko idazkaritzan lanegun guztietan, astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era, eta ohartarazten da epe hori igaro ondoren aipatutako erabakiari buruzko erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, udal-ordenantza horren aldaketa behin betiko onartutzat joko dela, Udalbatzarrak beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoak azaltzeko txandan, Olatz Santamaria (EH-Bildu) zinegotziak hartu du hitza eta hau adierazi du:

- 2006. urtean, Orioko Udalak Orioko udalerrian eguzki-plakak instalatzea arautzen duen udal-ordenantza izapidetu eta onartu zuen.
- 2011. urtean, aipatutako udal-ordenantzaren aldaketa izapidetu zen, haren 4. artikulua aldatzeko, ordenantza horretan jasotakoak baino plaka-azalera handiagoak jarri ahal izan zitezen eraikin publikoetan.
- Eusko Legebiltzarrak ekainaren 1eko 5/2023 Legea onartu zuen, autokontsumoaren izapidetzea errazteko eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatzeko. 5/2023 Legea autokontsumoko instalazioetarako obrak egitean udal-lizentziaren beharra kentzeko asmoz izapidetu zen, eta udal-lizentzia lortzeko beharraren ordeztu aldez aurreko jakinarazpena eskatzen zen.
- 5/2023 Legean eta Jasangarritasun Energetikoaren Legean xedatutakoa kontuan hartuta, indarrean dagoen egungo udal-ordenantza aldatzea proposatzen da.
- Udal-ordenantza honen aldaketaren xedea da elektrizitatea, ur bero sanitarioa eta berokuntza ekoizteko eguzki-plakak (termikoak eta fotovoltaiakoak) instalatzeko jarduketak arautzea.

HAMABI.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, alkateak osoko bilkura bukatutzat emateko agindu du, gaurko arratsaldeko zortziak eta hogeirela. Nik, Udaleko idazkariak, ZIURTATZEN DUT ETA FEDE EMATEN DUT.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,